

# Arratiako garapenerako jardunaldiak

Lemoa, Igorre eta Dimako udalak zuengana zuzentzen gara, gure herrietan pairatuten dogun langabezi egoera dala eta, danon artean dinamika berean bidea eraikitzeko.

Ez dago etorkizuna bermatuko duen plan integral bat Arratiarentzat. Ez dau eta beharrezkoa da. Beharrezkoa dogu Arratiako egoera errealetik abiatu eta eskualde honen biziraupena bermatuko dauen plan estrategiko orokor bat bultzatzea. Horretarako, prozesu hau arrakastatsua izateko, eragile guztien ekarpena izatea beharrezkotzat ikusten dogu.

Parte hartzea ahalbideratzeko asmoz, abenduan eta urtarrilean jardunaldiak antolatu doguz. Euskal Herriko beste eskualde batzuetako eta mundu zabaleko beste esperientzia batzuk ezagutuko ditugu eta ostean bertaratutako eragileek ekarpenak aintzat hartuz, jardunaldi hauen helburua Arratia garatzeko planaren oinarriak eta helburuak marraztea dira.

**Arratiarren etorkizuna Arratiarrok erabaki behar dogulako, zuengana jotzen dogu, jardunaldiotan parte hartzeko gonbidapena luzatuz.**

## Egitaraua:

### Abenduak 11

> Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena:

\* Tolosaldea Garatzen: Ibai Iriarte, Tolosako alkatea.  
[www.tolosaldeagaratzen.net](http://www.tolosaldeagaratzen.net)

\* Sakantzen Sarea: Joseba Garmendia, EHUko irakaslea eta Sakantzen Sareako kidea.  
[www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com) / <http://sakantzen.blogspot.com/es/>

\* Ideiak partekatzeko tartea

### Abenduak 17

> Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena:

\* Paco Alburquerque, Ekonomia Zientzietan eta Enpresan Doktorea, Madrilgo Unibertsitatean.  
<http://www.comercioexterior.ub.es/prof/alburquerque.htm>  
<https://www.youtube.com/watch?v=oTj63uTXeo4>

\* Ideiak partekatzeko tartea

### Urtarrilak 15

> Tokiko garapenerako esperientzien aurkezpena:

\* Azaro fundazioa, Lea Artibai eskualdeko garapen sozio-ekonomikorako agentzia.  
Ainara Basurko, Azaro Fundazioko garapen agentziako teknikaria.  
<http://www.azarofundazioa.com>

\* Ideiak partekatzeko tartea

### Urtarrilak 22

> Elhuyar Fundazioaren eskutik

Arratia garatzeko planaren oinarriak eta helburuak marrazteko ariketa parte-hartzailea.

\* <http://www.elhuyar.org>

**Lekua: Igorreko Kultur Etxean**  
**Ordua: 18:30 - 20:30**

Bertan ikusiko garelakoan, gure agurrik beroena.

Adeitasunez,



Igorreko udala